



Eibar eta Batzar Nagusiak.

Eibarrek 1387. urteaz geroztik du ordezkaritza Batzar Nagusietan, eta udal dokumentazioan agertzen den bezala, herriaren interesen alde egiteko, urtero, herriaren izenean, Batzarretako Prokuradorea bidaltzen zuen.

Foruak kendu baino urte batzuk lehenago, Eibarrek Batzarretako bederatzigarren lekua zuen, korrejidorearen eskuman, baina hala ere oraindik ez zuen bertan bilerarik izan eta 1865ean Ordizian egin ziren Batzarretan, Eibarrek hauxe eskatu zuen: *“que se declarase Eibar como pueblo de turno para la celebración de las Juntas Generales de la Provincia, tomando en consideración el estado de prosperidad en que se haya la villa, encargando á la Diputación que procurase obtener la sanción de este Decreto...”*. 1866. urtean, Azkoitian egindako bilkuran, Getarikoaren ondoren Batzar Nagusiak Eibarren egitea erabaki zen, baina 1876an foruak kendu egin zituztenez erabaki hura ezerezean geratu zen.

Batzar Nagusiak martxoaren 4ko 18/1977 Lege Errege Dekretuz berrezarri ziren, eta Eibarren, lehenengo aldiz historian, aurreneko Batzar Nagusi ibiltariak 1985ean egin ziren. Batzar hau urtero egiten da eta beti izaten da uztailaren 2an, ibiltaria da eta dagokion herrian izaten da XIX. mendearen amaiera aldean ezarritako ordenaren edo hurrenkeraren arabera: Segura, Azpeitia, Zarautz, Irun, Ordizia, Zumarraga, Azkoitia, Oñati, Zumaia, Hondarribia, Bergara, Mutriku, Tolosa, Oiartzun, Arrasate, Donostia-San Sebastián, Hernani, Elgoibar, Deba, Renteria, Getaria, Eibar, Zestoa.

Eibarren, Jesus Maria Agirre Arriola alkate zela, 1985eko uztailaren 2an egindako Batzarrean bost aztergai izan ziren, eta bilkura-burua Javier Aizarna Azula jauna izan zen, agintaldi bitan batzar nagusietako Presidentea izan zena.

Ordutik hona hogeita bi urte igaro dira eta Eibar berriro izango da Batzar Nagusien bilera leku. Rafaela Romero Pozo andrea da Batzar Nagusietako presidentea eta Gipuzkoako lurralde historikoak dituen lau hauteskunde-barrutietako berrogeita hamaika batzarkideak ere berarekin etorriko dira. Udalak egingo die ongietorria Miguel De los Toyos Nazabal alkatea aurrean duela.

Udal Artxiboa

